

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK

JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	Mutualia
2. Sektorea:	Zerbitzua
3. Langile kopurua:	593
4. Webgunea:	www.mutualia.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Mutualia, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2. zk.ko Mutua, enpresen elkarte pribatu bat da, irabazi-asmorik gabekoa, eta bere helburua da enpresa kideak eta pertsona babestuei zuzendutako zerbitzu sanitarioak, prestazio ekonomikoak eta prebentzio-jarduerak kudeatzea.</p> <p>Prebentzioaren kultura sustatzen du, bai bezeroen artean, bai gizartean. Horretarako, osasuna, bizi-kalitatea eta bere interesdun taldeen gogobetetzea hobetzea helburu duen kudeaketa aurreratuko eredu bat aplikatzen du, produktu berritzaileen eta pertsona konprometituen eskutik, gizartearekiko erantzukizunez jardunez eta Gizarte Segurantzaren Sistemaren jasagarritasuna bermatzea bilatuz.</p> <p>Mutualiaren lana ondorengo jarduera hauek dira:</p> <p>a) Gizarte Segurantzako laneko istripu eta lanbide-gaixotasunen ondoriozko kontingentzien babesean sartzan diren prestazio ekonomikoak eta osasun-laguntzak kudeatzea, errehabilitazioa barne dela, baita babes-ekintzak eskaintzen dituen kontingentzia berorien inguruko prebentzio-jarduerak ere kudeatzea.</p> <p>b) Kontingentzia arruntek eragindako aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoa kudeatzea.</p> <p>c) Haurdunaldiko eta edoskitzaro naturaleko arriskuengatiko prestazioak kudeatzea.</p> <p>d) Norberaren konturako langileek jarduera eteteagatik dituzten prestazio ekonomikoak kudeatzea, 32/2010 Legeak, abuztuaren 5ekoak, arautzen duen moduan, bertan xedatzen baita langile autonomoak jarduera utzi ostean babesteko berariazko sistema.</p> <p>e) Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeagatiko prestazioaren kudeaketa.</p>

f) Legez ematen ahal zaizkien Gizarte Segurantzaren baitako gainerako jarduerak.

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak: Jon Irizar Huguet

Helbide elektronikoa: jirizar@mutualia.eus

Telefonoa: 944252500 luz.:4623

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA




KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	HIZKUNTZAK ORGANIGRAMAN
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Hasiera batean, euskararekin lotutako gaiak Pertsonen Garapenaren arloan kokatuta zeuden. Arlo horretatik antolatu ziren hizkuntza-politika eta prestakuntza-planak.</p> <p>Geroago, 2021-2025 Plan Estrategikoari buruzko hausnarketaren ondoren, erabaki genuen hizkuntzak jakitea eta erabiltzea ez dela soilik erakundeak pertsonen kontua, baizik eta erakundearena berarena ere badela, eta, beraz, erakundeak ezagutu eta erabili behar dituela hizkuntzak. Ideia hori aplikatzeko, komunikazio-arloak kudeatzen du orain hizkuntzen ezagutza eta erabilera Mutualian. Komunikazio-arloa zuzendaritzaren Staff arloa da, eta hari, komunikazioari dagokion guztian aholkua ematen dio, bai kanpo, zein barneko komunikazioan.</p> <p>Aldaketa nabarmena da, lehen Mutualiako pertsonak euskaraz jakitea baitzen helburua. Baina ez zegoen pertsonak hizkuntza jakiteak beste interes-talde batzuekin komunikatzeko hizkuntza erabiltzea ekar zezan, ardua zuen alorrik. Horregatik, gure ahalegin gehienak prestakuntzara zuzentzen ziren. Izan ere, adierazleetako bat pertsonak lortutako hizkuntzaren ezagutza-ziurtagirien kopurua zen.</p> <p>Orain, Mutualiak euskaraz hitz egiten du eta horrek komunikazio guztia, kanpokoa zein barnekoa, elebiduna izatea eskatzen du. Prestakuntzan egiten diren ahaleginek berdina izaten jarraitzen dute, baina prestakuntza euskararen ezagutzara eta lan tresna gisa erabiltzera bideratzen da, Mutualiak euskaraz hitz egin dezan. Garrantzia duena da barne eta kanpo harremanetan euskararen erabilera neurtzea eta ez horrenbeste, zenbat ziurtagiri lortu diren.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...
 (Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
 GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SAILA
 DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA